

**IRATZEDER POETA**  
(Donibane Lohizunen, 2015-X-03)

Agur jaunak et(a) andreak,  
Agur (e)t(a) erdi ...

Donibane Lohizunen bilduak gare beraz, herri hontako seme handi bat ospatu nahiz. Jean Diharce, Aita Xabier, izen goitiz Iratzeder, Donibane Lohizundarra zen naski. Ez du sekulan ahanzi, beti goraki aipatu du. « *Toute pensée a son port d'attache* » zion Paul Valéry poeta / pentsalariak, itsaso bazterrekoa baitzen hura ere, Sètekoa. Iratzederrek halaber portua hurbil-hurbila zuen, Donibanekoa bistan dena.

Fraide beneditarra, apeza, denbora luzez Belokeko aita abadea, idazlea, euskaltzaina, kargu eta lan askotan entzun eta ikusi dugu, gauza frango egin du, bizia ongi bete. Baina niretzat, oroz gainetik poeta da, olerkaria, xoria berez kantaria den bezala. Eta sail hortan aipatuko dautzuet, denak ezin erranez gainera oren erdi batez. Hortakoz ere, etsenplu gehienak hartuko ditut agertu berri den liburuttoan.

Iratzederren olerkia gai ezberdinen gaindi dabila, poesia soziala barne. Baina maiteenik dituen gaiak dire naturakoak, gain-gainetik itsasoa eta mendia, liburutto hontako izenburu eta tituluak dakarren bezala : **Itsaso eta mendia, bien artean Donibane.**

« Etetik amaren besoetan jautsi naizen lehen aldian, eskuin agertu zait itxasoa eta ezker mendia. Ez da beraz harritzekorik hainbertze aldiz baititut olerki pertsuetan aipatu : itsas-uhainak eta Larrun-mendiko kaskoa. »

Itsasoa nolaz ahanzi zezakeen, bera donibandarra izaki. Sortzean kasik ur gazi hortara erori zen, Obelix bere salda magikora bezala. Gainera itsasoa zinez deigarri zaio edozein jenderi, eta Beaudelairek haxe idatzi zuen : « *Homme libre, toujours tu chériras la mer* » (gizon librea, itsasoa beti maiteko duzu). Itsasoaren idurira, poesia ez ote da libertatearen eremua, askatasunaren bazterrik gabeko erresuma ?

Artetik aitor dezadan zuberotarrei ere itsasoa zinez deigarri zaikula, guretzat oso exotikoa baita ere. Gainera gure Uhaitza, bertze batzuei juntatu ondoan, Baionan behera sartzen da, eta hortik zuberotar batzu itsasoratzen ziren, mariñel itsasturi bilakatuz. Horren adierazle dugu « Jeiki, jeiki etxekoak » delako kantu famatua, bitxi bada ere zuberotar kantua. Bertzalde gazte denboran « Boga boga » kantua ikasi nuelarik, ez zuen Ondarroako porturik aipu, Donibanekoa ginuen hor kantatzen, eta ni beti hortan nago.

Haatik Iratzederrek ez zuen dei exotiko baten beharrik, itsasoa bere baitan baitzuen : odolean eta izpirituan zuen bistan bezainbat. Etengabe kantatu zuen, amodio eta maitasun oso batez, liburutto hontarik ikus dezakegun bezala, berezikiago Itsasoa poeman.

Itsasoa !  
Zuri behatu gabe nola egon naite ?  
Zure boz latzarekin, othoi mintza zaite ;  
Erradazu zertako zaitudan hain maite.

Jean Diharce mariñel / itsasturi egin zaitekeen, baina barneko dei berezi batek, Jondoni Petri eta horren lagun batzu bezala, jende arrantzale bilakatzera bildu zuen, lehenbizikorik Uztaritzeko San Frantses Xabierren muno gain hartara, gero Belokeko mendixka hegira, eta handik bistan zuen, hurbil-hurbila, Hazparneko Urtsuia, Larrun(e) oroitarazten ziona.

Larrun(e) ez da Himalaia naski. Baina Donibane Lohizundik hain hurbil, oinak kasik urean, itsasotik lehena denez, bederatzi ehun metroko pareta frango zutarekin, mendi puska ederra dugu, fierra, burgoia. Batzuek erran lezakete *harroa*, baina hitz horrek bertze zerbait

adierazten du Iparraldeko hiru probintzia edo lurraldeetan. *Fier* hitza Euskaltzaindiko hiztegi batuan dugu, eta euskaltzainak baino euskaltzainago izatekotan, *burgoi* hitza ere hor dago.

Dena dela, itsasoari bezala, mendiari maitasun handia dio Iratzederrek, bereziki Larrungoari, eta ez ditu bata bertzetik bereizten. « *Itsaso eta mendia* » du hain zuzen olerki liburu berriaren izenburu eta titulua, eta horren azpitik hona Larrungo mendia poemako lehen bertsua..

Larrungo mendia,  
Ama bihotz bat bezain zabala, burua gora bazaude,  
Tirainek nahi lukete itho pean daukazun Herria,  
Bainan marrumaz ikharaturik itsasperantzen dirade.

Itsasoari eta mendiari lotuak, bertze bi amodio eta maitasun : Jainkoa eta Euskal Herria, horiek ere zinez elgarri lotuak, eta lauak ez ditu bereizten.

Mendi gainean, zerua hurbilago da bere izarrekin, beraz Jaun Goikoa ere bai, eta mundua zabalago, hainbat ederrago. Hona Oi mendien gainetik olerkiko lehen bertsua.

Oi mendien gainetik bazterren zabala  
Goiz-et-arrats kantari aiosik nabila.  
Gaizkian dabiltzanak ilunik daudela :  
Nik bihotza arin dut xoria bezala.

Itsasoak Jainkoaren handitasuna adierazten du, bai eta gure arimaren ibilaldia Jainkoaren bila erakusten, hala nola Itsasoa olerkiko azken bertsuan.

Itsasoa !  
Zerk du ba zure baitan xoratzen gogoa ?  
Zabal zabala zare, muga gabekoa !  
Gogoratzen dautazu gure Jaun Goikoa.

XVII. mendean Bernard Gazteluzar Ziburuko apez jesuita, poeta ederrak, hauxe idatzi zuen :

« Urrun hadi, Parnasoko  
« Musa zahar profanoa,  
« Eta zato, zeruko  
« Musa berri dibinoa.

Iratzederrek ordea bertze bide bat hartu du, zabalagoa, eta bikoitza. Olerki profanoa eta olerki dibinoa, biak lantzen ditu, maiz elgarri josiak, baina bertze batzuetan bereiziak. Adibidez hona bat, osoki profanoa, bere gaztaroko, gazte denborako sukarraren adierazle, beti ere itsasoari lotua : Itxas-lapur.

Arbasoen khar beroak  
Erretzen nau ta zoratzen  
Itsasoa ! Itsasoa !  
Hire amets gaitz zoroak  
Daut gogoan su ezartzen.

Aita Iratzeder hemen balego, erran nezaioke *Itsas lapurra* delako izenburu hori bortixkoa zaitala kortsarioez ari delarik, ezen kortsarioek lege batzu bete behar zituzten, eta bereziki harrapatzen zituzten ontasunak erregearekin partekatu, horren meneko ari baitziren ; gero urte zenbaitez 1. Errepublika zerbitzatu zuten, azkenean Napoleon Buonaparte enperadorea ere. Piratak aldiz beregain air ziren, eta beren legeaz bertzerik ez zuten errespetatzen. Hori artetik erranik, usu eta maiz bi motak nahasten baitire, kortsarioak eta piratak. Haatik Iratzederrek hein hori bazakikeen, bainan aipatzen dutan poema idatzi zuelarik gazteñoa zen.

Euskal Herriaren eta euskararen alderako maitasuna ere maiz kantatzen du, eta hona etsenplu bat, Napar guziek olerkian hartua :

Zu baitan da Naparroa,  
Sortua eskual-mintzoa.  
Zu baitan du, Naparroa,  
Eskuarak bere geroa.

Jainkoa maiz agertzen da Iratzederren olerkian, itsasoari edo mendiari lotua ; baina poema batzu hari buruz osoki itzuliak idatzi ditu, bereziki Salmoak. Segurki, Salmoak ez ditu berak asmatu, euskaraz itzuli ditu. Baina zer lan izigarria eta zinez ederra ! Batzuetan elizan kantatzen ditugu, bainan ez aski, ez nahikoa, lehenbizikorik euskara gutiegi baliatzen dugulako Euskal Herriko elizetan, bizi publiko guzian bezalaxe. Hona etsenplu bat, Jainkoa Jainko salmotik hartua.

Jainkoa Jainko : / nausitasuna du / soineko  
Indar osoa / du gerriko.  
Finkatua du / mundu zabala / bere peko,  
Deusek ez baitu / higituko.  
Zauden alkia / bai betidanik, / bai betiko :  
Betieretik / zare Jainko.

### **Nolakoa den Iratzederren poesia ?**

Lehenbizikorik, berak dionez, oso gazterik hasi zen. Aitortzen daiku ere kantutik ikasi zuela, hirurogei bat euskal kantu baitzazkien ; eta erran dezaket horren olerkia kantua dela, kantatzeko egina bezala, kanta errexa. Eta hor dago azpitik hitzen eta erranaldien musika, ber denboran indartsua, argia eta ezitia.

Aditu batzuen arabera, kantua gauza bat da, eta poesia bertze bat, arras bertzelakoa. Iratzederrek ez ditu bereizten, nik ere ez, eta etsenplu aski gora baten emateko, XVI. mendean Ronsard handiak bere sonetoak kantatzeko moldatzen zituen. Bere inguruko musikari hoberenek soinua jartzen zioten, eta horri esker ondoko mendean oraino, XVII.ean, Pariseko emazteek latsagian kantatzen ziozkaten. Hara niretzat arrakastarik hoberena !

Iratzederrek, bereziki gazte denboran, kantu batzu idatzi ditu jadanik zabilan aire batean. Bertze olerki batzu ondotik musikatuak izan zaizkio ; musikan jarri dizkiote Hegoaldeko musikari ezagun batzuek : Urteaga, Garbizu, Olaizola, Bengoak...

Beti aditu zenbaiten arabera, olerki herrikoia – ala herritarra ? – eta goiko poesia bereizi behar laitezke. Iratzederrengan ez dut holako hausturarik nabaritzen. Beti ederki ari da, beti funtsezko zerbait erraten du, euskaraz ongi dakien orok endelgatzeko moduan gainera. Batzuen ustez orain, olerkia hetsiago, misteriotsuago, ulergaitzago eta hobe da, konprenitzea bekatu balitz bezala.. Ez dut ikusten zergatik eta zertako holakoa izan behar lukeen. Iratzederren poesia ederra zait, gozoa, interesgarria, eta beraz gustukoa.

Nortasun osoari dei egiten du : bihotzari sendimendu batean ezti, bertzean sutsu, beti mistikoez ; buruari bere ideiez, bereziki Euskal Herri osoaren alde, lehenbiziko abertzaleetarik izan baitzen oso gazterik ; sentsuei ere kasik beti, bereziki begiei, itsaso, mendi, lano, zeru, izarren ederra margotuz ; belarriei bere hitzen eta erranaldien musikaz eta kantuaz. Iratzeder, enetzat, Idatzeder da, osoki poeta, erran nezake naturalki poeta, bere poesia ez balu hainbeste landu.

### **Iratzederren metrika**

Iratzederrek izari desberdinetako neurtitzak eta bertsuak erabiltzen ditu. Neurtitza, frantsesezko « le vers » delakoa da, eman dezagun lerroa, Iparraldeko usaian bederen ; aldiz bertsua edo pertsua, batuan bertsoa, zubereraz bertseta, « le verset ».

Zortzi urratseko neurtitza eta lau neurtitzeko bertsua derabil adibidez *Itsasoa, Itsas-lapur eta Napar guziek* olerkietan. Euskal poesian ez da hautu bitxia, bertze batzuek ere baliatu dute, aipatu berri dutan Gazteluzar barne.

*Larrungo mendia* poeman ordea, Iratzederrek hamazortzi urrats edo silabako euskal neurtitz luzea du, gure literaturan klasikoenetarik, bereziki aho-mihizko bertsularien artean. Zortziko handia deitzen dugu, bi zati baititu, maiz kakotx batez bereziak : lehenik hamar urrats, gero zortzi, eta beraz bi lerrotan idatzi daiteke, Hegoaldean usatzen den bezala. Hortik zortziko handia izena. Haatik *Larrungo mendia* olerkian, lau neurtitzeko bertsua hirukoarekin aldizkatzen du.

*Oi mendien gainetik* olerkian, Iratzeder zortziko txikian ari zaiku :

Oi mendien gainetik bazterren zabala  
Goiz-et-arrats kantari aiosik nabila.  
Gaizkian dabiltzanak ilunik daudela :  
Nik bihotza arin dut xoria bezala.

Bertsuan lau neurtitz ; neurtitzak hamahiru urrats edo silaba : zazpi eta sei ; beraz hori ere bi lerrotan idatz daiteke, eta bertsua zortzitan, bere izena merezituz. Haatik Iratzederrek lau lerrotan idazten du, eta hori dugu Iparraldeko usaia zaharra. Bertzalde hamahiruko neurtitza dugu ene ustez euskal neurtitz klasikoena, alexandrinoaren parekoa.

*Oi mendien gainetik* olerki hontan, eta bertze askotan, baladaren itxura hartzen du Iratzederren olerkiak. Ez da Villonen balada zaharra, Piarres Duny-Petrek hain polliki berpiztu duena, bertsu bakoitza bukatzean errepikatzen den igortze delakoarekin. Iratzederrena balada modernoa da, lau neurtitzeko koplak andana batez egina.

Errimaz, puntuaz edo neurtitz buruaz bi hitz. *Oi mendien gainetik* eta *Napar guziek* olerkietan, baita bertze zenbaitetan, aho-mihizko bertsularien lau errima berdinak erabiltzen ditu. Baina gehienetan errimak birazkatzen ditu, dela segidan (aa, bb), dela aldizkatuz (ab, ab), dela besarkatuz (a, bb, a).

Orokorki, neurtitz, errima eta bertsu molde askorekin idazten du Iratzederrek. Haatik sonetoa oso gutitan erabili du : behin edo berritan bakarrik ene jakinean.

### **Hizkuntzaren aldetik**

Lapurtera ederrean ari zaiku, luzaz nagusi egon den Lapurdiko euskalki mamitsu eta noblean, orain izkiriotik baztertuegia ikusten dutan euskara mota prezios hortan. Euskara batua sortu dugun baitan, lapurterak egon behar luke gipuzkeraren pareko zutabea, pilarra. Maluruski ez da maiz hola gertatzen gazteagoen artean. Baina ni ahal dudano lapurteraren alde agertuko naiz, Iratzederren segidan, lapurtera idatzia bizi dadin Axularrek ireki zuen

bidetik, eta bertzalde toki bat aski nasaia atxik dezan euskara batuan, adibidez Koldo Mitxelena hizkuntzalari eta linguista jakintsuak ikusten zuen bezala.

Eta hemen zaretenen axolez, batua eta zuberera bazter utzirik egungo, entseatu naiz lapurtera idatzitik ahal bezain hurbil ibiltzera.

Burutzeko hona Iratzederrek argitaratu zituen hiru olerki liburu :

- *Pindar eta lano*
- *Argiz-argi*
- *Uhaineri nausi.*

Bertze bat falta zait :

- *Zeru-menditik*

Bertzalde hemen ditut bi liburu ezberdin :

- *Fededunen arbasoa* antzerki edo teatroa, Abrahamez, neurtitz libreetan : Abraham baitugu juduen, giristinoen eta musulmanen aintzinekoa.
- *Biziaren gudaldia* : hau gehienik hitz lauz edo prosan.

Artetik erran behar dut Iratzederrek prosan ere anitz idatzi duela. Bizkitartean, mintzaldi honen burutzeko, interesgarri zait azken liburu hortarik olerki baten aipatzea, geroari buruz indar ematen ahal baiterauku :(Euskalgora, 190-191. or. : lehen bertsua eta azkena).

*Nondik da, norat doa,  
Zer da zer euskalgora ?*

Lehengoen ahotik  
jali bihotz-mintzoa,  
Anai eta lagunen  
agur-kantu beroa,  
Hehork ezin ahantzi  
haur-egunen goxoa.

*Nondik da, norat doa,  
Zer da zer euskalgora ?*

Mundu-zabal osoan  
mintzairaz bat gauzkana,  
Ezberdinak gaingiduz  
dakigula sar barna,  
Denak Euskaldunago  
beti gaiten aintzina.

Agur jaunak (e)t(a) andreak,  
Agur denak !

## LE POÈTE IRATZEDER

Jean Diharce (1920-2008), en religion Père Xavier, en littérature Iratzéder (Bellefougère) a porté dans sa vie plusieurs bérêts : moine bénédictin, prêtre, père abbé de Bellocq, missionnaire en Afrique, écrivain polyfacétique, membre titulaire de l'Académie de la langue basque Euskaltzaindia... Mais pour moi il est surtout un poète, et c'est à ce titre que je l'évoque ici. Sa poésie est fortement marquée par le lieu de sa naissance, - par son « port d'attache » dirait Paul Valéry, - ainsi qu'il le signifie lui-même au début de ce recueil, d'abord par le titre – *L'océan et la montagne, entre les deux Saint-Jean-de-Luz* – puis par l'entrée en matière : « La première fois que je descendis de la maison dans les bras de maman, à droite je vis la mer et à gauche la montagne. Il n'est donc pas étonnant que j'aie si souvent évoqué dans les versets de mes poèmes les vagues de l'océan et le sommet de Larrune (La Rhune). »

Ses deux autres amours : Dieu et le Pays Basque, indissolublement unis, tous deux reliés à la mer et à la montagne. Voilà les quatre piliers de sa poésie et de sa table d'écrivain. L'océan évoque l'immensité de Dieu, sa puissance et son dynamisme inépuisable ; la montagne nous rapproche de lui et de ses étoiles ; elle nous montre aussi l'étendue infinie du monde et sa beauté, miroir du créateur. Celui-ci n'est jamais loin, il est même présent partout dans la nature, implicitement, comme le sel dans l'océan, la lumière qui nous éclaire ou l'air que nous respirons. Si Jean Diharce n'était pas disciple de Jésus-Christ, je dirais qu'il est panthéiste.

Avec sa mer et sa montagne, la patrie (ou la matrice ?) basque est le grand amour terrestre d'Iratzéder. Celui-ci fut, dès son adolescence, l'un des tout premiers abertzale (*patriotes* basques) de notre temps, et il est toujours resté fidèle à cet idéal jusque dans ses poèmes.

Contrairement à son voisin et prédécesseur de Ciboure, le Père jésuite Bernard Gazteluzar (au XVII<sup>ème</sup> siècle), lui aussi excellent poète basque, Iratzéder ne rejette pas la poésie « profane » au profit de la poésie « divine » : il cultive les deux, souvent unies, parfois distinctes, mais je viens de le dire, Dieu n'est jamais oublié.

Au risque de déplaire à certains puristes, Iratzéder ne sépare pas la poésie du chant. Adolescent, il apprit à versifier à partir des nombreux chants basques qu'il connaissait. Sa poésie est déjà un chant par la musique de la langue. Bien de ses poèmes ont été mis en musique par les meilleurs musiciens basques. Ses textes y étaient prédisposés, tout comme les sonnets de Ronsard qui étaient faits pour être harmonisés par les plus grands musiciens de son temps, et qui seront encore chantés au XVII<sup>ème</sup> siècle par les lavandières de Paris. De leur côté les Psaumes traduits par Iratzéder sont repris dans nos messes par le peuple chrétien.

Iratzéder se joue également d'un autre dogme sacré des gourous qui prétendent régenter ce genre littéraire : il ne sépare pas de la poésie populaire la poésie dite grande. Selon certains, celle-ci serait d'autant plus belle qu'elle serait plus obscure. Rien de tel chez Iratzéder : son écriture est aussi lumineuse qu'harmonieuse. Est-ce un mal ? Bien au contraire, à mon avis : tout le monde peut y saisir, sinon la totalité, du moins l'essentiel. La meilleure poésie ne serait-elle pas celle que l'on pourrait partager avec le plus grand nombre de lecteurs ou d'auditeurs, sans tomber dans la facilité, la banalité, la prose rimée ?

La barque du capitaine luzien Iratzéder – ce pêcheur d'hommes basco-galiléen – ne nous laisse pas ramer le nez dans l'eau ; sa voile épouse le bon vent et suit la bonne étoile. Merci pour tout, noble et fraternel poète Iratzéder !

*Jean-Louis Davant*